

Aia udaletxeko batzar aretoan eguerdiko hamabitan, presaz eta ez-ohizko bileran, bildu da UDALBATZARRA, Idazkari-kontuhartzailea bertan egonik.

Alkate-buru jaunak zuzendu du bilera eta honako udalkideak bertaratu dira:

LEHENDAKARIA: Igor Iturain Iburguren jauna

ZINEGOTZIAK :

- 1.- Mari Karmen Egurza Agirre anderea
- 2.- Maria Jesús Arruabarrena Esnaola anderea
- 3.- Anxon Gomez Lorente jauna

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA: Itziar Azurtza-Sorrondegi anderea

GAI BAKARRA: Udal eraikinaren eraberritze obraren behin-betiko esleipena

Idazkariak adierazi duenez, CONSTRUCCIONES ASTIARAN SL expresaren aldeko burutu zen behin-behineko esleipena apirilaren 1ean. Geroztik, 12.278,02 .-euroko abala gordailatu du udaletxean.

Behin abala aurkeztuz geroztik, baldintza pleguaren hamargaren eta hamairugarren baldintzak kontuan izan behar dira. Obrari ekiteko azken eguna apirilaren 29a litzateke, baina sustatzaileak apirilaren 27an lanak abiarazteko asmoa azaldu du iada.

Lan arloko osasun eta segurtasun azterkera aurkeztu behar du kontratistak, gero Tesysal enpresak, lan arloko osasun eta segurtasun koordinazio lanak burutuko dituenak, ontzat eman dezan.

BOZKETA: Alde: 4 bozka. (denak)

AKORDIOA:.

Aiako udal eraikinaren eraberritze obra kontratuaren esleipena behin-betikoz burutzea. Beti ere, Aiako udalbatzak 2009ko martxoaren 4ean onartu zuen kontratazio espedienteari jarraiki - prozedura irekiz, ekonomikoki onuragarriena den eskaintza kontuan hartuz, zenbait esleipen irizpideren arabera eta presazko izapidetzaz gauzatu denari-Eta baita, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2009ko martxoaren 6an (44 zenbakian) eta "kontratatzaile edo kontratugile profil" atalean argitaratukoaren ildotik.

Bertan gertatu dena jaso gera dadin, izenpetu dut Aian, 2009ko ekainaren 30ean.

IGOR ITURAIN IBARGUREN jauna

MK EGURZA AGIRRE anderea

ANTXON GOMEZ LORENTE jauna

MJ ARRUABARRENA ESNAOLA anderea

Idazkari-kontuhartzaileak.